

Karlos V.a eta bere asaba Noe

• JOXE AZURMENDI •

[PENTSALARIA]

Aurten egiten du bostehun urte Flandriako Ganten jaio zela Karlos, Espainiako I.a eta Alemaniako V.a, solemnitare infantil handiosoz eskolan ikasten genuenez. Horren kariatara, kaiser Habsburgotarraren bizitza eta garaiko Erakusketa Internazional bat antolatuta da. Ganten, Bonnen, Vienan eta Toledon ikusgai ibiliko dena urtean zehar.

Bonnen ikusi dut nik. Sartu eta, ezkerretara, estreina topatzen duguna, kaiserraren genealogia bat. Bat ez, bi. Eta nola ez: haren etorkia Noe beraganaino luzatzen da. Brabanteko Dukeen Etxeko aitagoia ezin izan zitekeen patriarka bibliko axe baino besterik tenoreko Europan. (Urte batzuk geroago Filipe II.ari Adanganainoko genealogia asmatuko diote bere kronistek! Progresoaren legea). Baina Biblia bakarrik ez da aski jada: Ernazimentuan gaude.

Haur habsburgotarraren beste aurretiko leinargi batzuk Troiatik-eta datoz, logikoa denez: Julio Zesar eta Inperatore erromatarrekin ere senidetua dago. Jerusalem eta Erroma: Kaiserraren odolean munduko historia bikoitza bilizten da, profanoa eta sakratua. Mundua eta zerua.

Ez dira ipuinak. Metafora genealogikoak «realitatearen» espresio guztiz errealistak dira: horiek inazaltzen du garai hark handikion izaera aparta, besteona ez bezalakoa. Haur bizikletazale amorratu batetik, «Indurain bat egina dago!» esaten dugu gaur, eta denok ulertzen dugu, metonimiarekin, nolabait definitu eta handitu egin dugula kaskurria, ezagutzen dugun ziklista handienarekin erlazioan ipiniz. Gure kontzeptuaketa, Indurainen «naturakoa» bezala bihurtzen dugu harekin konparatuz. Erdi Aroan eta Ernazimentuan, nor zer izan, balio sozialaren erreferentzia funtsezkoak, naturalak kontsideratzen ziren, genealogikoak batik bat. Izan ere, arbasoen posizioak menpean zegoen bakoitzaren bizieroa gizaratean: noblearen seinena noblea izango zen; jopuarena, jopu. H. d., jatorria berdin natura zen, natura berdin patua. Beraz, hiri eta leinu handiek, patu handiak beren buruei prometatze, beren hastapenetan aitagai handiak asmatu dituzte; probintzia «libreek» (Gipuzkoak, Arabak), paktu libre fundatzaileak. Filosofia moderno razionalistak berak, Itun Sozial bat imaginatu du «gizartearen fundatzaile historiko» razionalizatzen. Zuzenbide Naturalaren filosofia modernoak paradigma hori dizu ondopean. Halaber «jatorriaren» eskemarekin trazatu dira historia, zientzia. Ez al da esaten, zientziaren oinarrian metaforak daudela?

Teoriak baldintza sozialak ispliatzen ditu. Monarkia guztiek beren sorburu loriatsuak dituzte —horrek erakusten du haien «natura». Berdin herriek, nazioek. Genealogismoa, hortaz, ez da ipuin bat: zientzia eta razionalismo modernoaren paradigma da.

Bestalde, *Untsa hiltzeko arte* ilunak ahaztu eta, fama argia, loria, hilekotasuna, ohorea dira. Gorte inguruetan bildu diren poeten kantagai berriak. Are, kolorez beterik ari da Erdi Aroaren

„
*Mitologia grekoa
eta erromatarra ba al
dira, bada,
izan ere,
Boterearen
sare genealogiko
konplexu batzuk
baino asko besterik?*»

baitatik modernia sortzen. Karlos V.ak, Frantzisko I.ak, irudiaren balio propagandistikoa deskubritu dizute. Gertaera familiar, politiko edo militar orok bere pintorea eta musikoa beharko dizu honez gero. Mendeurreneko Erakusketan zerbait gailentzen bada, Tizianoren pintura inperialak dira, nik uste. Karlos V.aren zuti osoko laukia, Ulmeko dogo zakurrak, Jacob Seiseneger-en «bizkiarekin» aldamenen. (Nork kopiatu dio nori?). Mühlberg-eko zaldun bikain hori, gerrako oinaztarri berria. Tizianoren portretak —berdin Filipe II. gaztearena— birrukiutak, politikuak dira, habsburgoen okotz eroria disimulatuz. (Velazquez krudelagoa izanen da babu-arpegi koroatuekin). Kaiserraren irudi idealizatuak, monumentalak. Boterearen bikaintasun gizagaindikoaren, kaiser zaldun eta santu, lurbiraren nagusi mundutik aldaratu mistiko-heroikoaren ispilu eta aldaire.

Kaiserra ez baita egungoon arteko norma. Alesander berria da. Augusto da, Traiano bihotz zabala; Marko Aurelio, kaiser filosofoa. Herkules berri bat. (Ez al du Hans Holbeinek Lutero bera «Herkules Germaniarra» bezala pintatu, mazo handi batekin armatua?). Leone Leoniren eskulturretan kaiserraren espresioa ez da oraindarra, beren beregi erromatarra da beti, hala ohartarazten digu katalogoan G. Kugler-en iruzkinak. «Karlos V.a eta Furor» brontzean, kaiserraren Mühlberg-eko garaipean esanahi mitologiko bat hartzen du: ez bakarrik printze protestanteak, baizik gerra bera garaitu du. Orainez gero, garaile meditakor, Bakearen Printzea izanen da. Virgilioren ikuskari bat irudikatzen du zizelak: Jupiterren profetia Venusi, honen seme Eneas eta ondo-

rengo asturu gaitzaren iragarpenaz, azkenean haien zerrendako azkenak, Zesar Augustok, behinbetiko bakea ekarriko duen arte. Zesar hori Karlos V.a da orain: kaiser germaniarra Erromako jainkoekin, mitoeikin, herioiekin bategña ageri da horrela; Augustoren bakea eta boterea bereak dira. Bai, Bakearen Printzeak dira: Zesar Augusto, Karlos V.a, Espartero, Franco... garailearen mitologia azkengabea. Hots, Boterearen mito modernoak: bakea berdin garaipena eta dominazioa.

Arteak, garaiko literaturak bezala, genealogia mitikoen funtzio bera betetzen du: Boterea jainkotzea. Mitologia grekoa eta erromatarra ba al dira, bada, izan ere, Boterearen sare genealogiko konplexu batzuk baino asko besterik? Heroi homerikoak eta familia noble greko-erromatarrek «jainkumeak» izaten dira; hiri harroek (Atenas, Erroma) fundazio jainkozkoa izan ohi dute. Baina ez da genealogia kontu soila. Humanisten «filosofia» berri oso bat da, ohore eta handikeriazkoa (zientzia berri konkistatzailearen izpiritu berarekin). Ernazimentuko aristuten eta poeten imaginario berria Petrarca-ren *Triunfoek* mukurru bete dute —oroi Frantzisko I.aren galeria Fontainebleau-n. Manera horretantxe, Karlosen Sarrera Augsburgon, Kaiser hilaren Ahukua Bruselan (berton 1559ko erreproduzio oso polit bat

Nafarroako banderarena), Tizianoren *La Gloria* ikus daitezke Erakusketa honetan. Moderniaren hastapeak: Monarkia dibinon eta Estatu nazional jainkozkoen hastapeak alegia. (Batzuek sekularpena deitzen zirela munduaren teologizazioa). Eta eragin sendoa izan dute hor, antzinatearen berpizkundearekin, Dantek, Petrarck, Boccaccio —1472an inprimatu da *Genealogia deorum gentilium*. Gero, 1489, Anno Viterbokoa; 95, Gaguin-en *De origine et gestis Francorum*; 1510, Lemaire de Belges-en *Illustrations de Gaule*; 1515 BudÇ; 1527, Ruxner, etab., *Espainolak eta euskaldunak gisako uholve guztia*... Genealogia guk deiturarekin lotzen dugu eta deitura bakoitzak bere armarria daukela, pentsatu ohi dugu; denok dugula gure armarria, jatorri urrunarekin batzen gaituena —gure nobletasun

inmemorialarekin alegia. Sinesgaitza da, zenbat bizirauten duen gure barruan anima arkaikoak! Deiturak ez darama arin Noeganaino. Ezkutua, XII. mendean hasi da ohitura, defentsako tresna izatetik, jaun edo etxe nobleren batzuen ezaugarri bihurtzekoa, hartarako behar zituen apainduriez egokiturik. XIV. mendean, gerrarako baliorik gabe, sinbolo soila da jada, aitonsemee- na ez ezik, burges aberatsen batzuen ere; baina baita jauntxo eliztar, abadia,

„
*Zesar Augusto,
Karlos Va.,
Espartero, Franco...,
garailearen mitologia
azkengabea.
Boterearen mito
modernoak: bakea
berdin dominazioa*»

diotzi eta hirren batzuk ere armariak hartzen hasi dira ikurtzat. Hain zuzen XIV-XV. mendeetan ezarri da, ugartzen ari baitzen, armarrion arauketa eta kontrol soziala, h. d., ezkutua (noblezia) kaiserrak edo erregeak «mateko» pribilegioa. Hortik aurrera, humanistekin kultura ofiziala letratu izaten abiatu denean (letraren noblezasuna), genealogiak hasi dira inportanteak izaten «historiaren»

agiri gisa, ia beti pseudohistorikoa noski, ezkutuen lekua hartuz: Anno, Bouchet..., Zellius —azken honek *Genealogia insignium imperatorum regum et principum* alimale bat paratu du, 1563. Hain zuzen 1520/30 aldekoa da Karlos V.aren Bruselako genealogia balliotsu hau, zurgaineko pergaminon, Erakusketan ikusgai dagoena, 64 armarr familiar dotorek apaindua!... Moda berriari jarraiki, txintxo asko, 1596an *Ilustraciones genealógicas de los Catholicos Reyes de las Españas* idatzi du gure Garibay, nagusiaren zerbitzari fina beti bera, haren ondotik usaimen fineko beste euskaldun batzuk bezala.

Denok berdinak eta batzuk berdina- goak omen garen bezala, denok gara Noeren haurrak, baina batzuk gehiago, handikeriaren uestez. Genealogia «sarkratuak» paraje guztietan aurkitzen dira. Txinako inperatoreek etorki zerutarra zuten; etorki jainkozkoa da Mikadoak Japonen; herri musulmanetan Mahomagandiko etorkia erabakiorra da erlijioso nahiz politikoki. Ingalaterrako erregeto saxoiekin, Erdi Aro goizean, Wotan jainkoaren askazikoak izan behar zuten. Horrela, Elisabeth II, Wotan jainkoandik zetorren genealogia nordiko tradizionalaren arabera. Baina, genealogia kristau «modernoaren» arauaz, bere kronistek (kutxan jaio ei zen haur, ez dakit zein izen bitxiko baten lerroitik) Noegandik etorrarazi dute. Hala nola Karlos V.a, eta Europa kristauko super-noble guztia —eta gure Tubal; modernia zer den azken momentura arte tutik ulertu ez duten inuxente listo batzuk gorabehera, beste euskotar bat ez baita sortu eguzki noblearen azpian, razional, moderno eta unibertsalagorik, Tubal mitiko hori baino!

„
*Denok berdinak
eta batzuk
berdinagoak omen
garen bezala, denok
gara Noeren haurrak,
baina batzuk gehiago,
handikeriaren uestez*»